

HEZKUNTZA PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

Ander Deuna Ikastolak honela definitzen du bere egitekoa: “Kalitatezko, banakako eta euskal heziketaren aldeko familien eta langileen konpromisoa, partaidetzan eta balioetan oinarritua”.

Konpromisoa du ikastolen kolektiboari elkartasuna agertzeko, Euskal Herriko ikastolen sarea garatzeko eta bertan parte hartzeko.

Euskararen berreskurapenarekin konprometituta dago eskola-orduez harago jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak curriculumaren baitako jarduerekin uztartuta eta osatuta.

Euskal kultura eta euskara transmititzeko konpromisoa du, baina munduko gainerako kulturak baztertu gabe. Indarra ipiniko du beste jatorri batzuetako ikasleek gure kultura eta hizkuntza barnera ditzaten, eta, era berean, aberasgarritzat joko du haiek euskal kulturari egin diezaioketen ekarpena.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun iraunkorra sustatzeko hezkuntza ez sexistaren aldeko hautua egin da eta curriculumaren baitako arloan zein kanpokoan genero-ikuspegia txertatuko da.

Ikasleei gizarte justuago eta iraunkorragoaren alde arduraz egiten lagunduko dien hezkuntza-praktika proposatzen dugu.

Pertsona ororen duintasuna, eskubideak eta berdintasuna babestuko dira. Ez du bat egiten inolako erlijio-sinesmenekin, baina inor ez da baztertuko bere pentsaera erlijiosoa dela kausa.

Etengabe egiten du hobekuntzaren eta berrikuntzaren alde, barne-ebaluazioa, langileen etengabeko prestakuntza eta guraso-eskolen eskaintza oinarri.

Modu autonomoan eta elkarlanaren bidez kudeatzen da. Pertsonak jartzen ditu erdigunean, ikasleen eta familien beharrezanetara egokitzen saiatzen da eta langileen ongizatearen alde egiten du.

Irakasleek hezkuntza-kompetentzia orokorrak txertatuko dituzte beren irakaskuntza-eginkizunetan, oinarritzko kompetentziak erdiesteko asmoz.

Bizikidetzaren kontrako jarrerak gertatzen direnean, elkarrenganako begirunean, elkarriketan, elkarlanean eta elkartasunean oinarritutako bidetik planteatuko ditugu neurri zuzentzaileak.

Ahalegin berezia egingo du hezkuntza-komunitate osoarentzako hezkuntza-proiektuarekin bat datozen ekintzak bideratzen.

CURRICULUM PRINTZIPIOAK

A. Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen bultzatzailea.

Bere egiten ditu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (1948) 26. artikuluan jasotakoak: hezkuntzarako eskubidea eta betebeharra nahiz oinarrizko hezkuntza-aldian izan beharreko gutxieneko doakotasuna; giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko errespetua sendotzea; eta familiaren eskubidea lehentasun osoz aukeratzeko seme-alabei eman nahi dien hezkuntza-mota.

B.- Guztiontzako eskola.

Bat egiten du denontzat izango den eskola anitzarekin, zeinak bere baitan biltzen dituen genero-, balio- eta gizarte-portaerak, hala nola politikoak eta erlijiosoak.

Irekia izango da pertsona guztientzat, edozein izanda ere haien jatorria, gizarte-maila eta maila ekonomikoa, eta aukera-berdintasuna bermatzeko ahalegina egingo du, ikasleek euskal gizartean bizitzen jakin dezaten.

C.- Pertsona- eta gizarte-eredua.

Ikasle libre eta kritikoa dugu xede.

Hezkuntza-jarduerak ikasleen beharrei erantzungo die, aniztasuna eta inklusioa gure jardueran txertatuta, eta bakoitzaren gaitasunak kontuan hartuta. Metodologia aktiboa bultzatuko da, hau da, ikaslearen zuzeneko partaidetza sustatuko dugu. Ikaslea bere ikas-prozesuaren protagonista da, balioei eta jarrerari garrantzia emango zaie.

Euskal Curriculumean definitutako hezkuntza-kompetentzia orokorren garapena bultzatuko du, hala nola, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, norbera izaten ikastea, eta egiten eta ekiten ikastea. Ikasleen oinarrizko heziketaren eta bizitza osorako prestakuntzaren oinarriak finkatuko ditu.

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko elkarbizitza-eredu gisa, eskubideei dagokienez genero-berdintasuna aldeztuko duten jarrerak eta portaerak bultzatuko dira hezkuntzan.

D.- Euskal eskola.

Euskal hizkuntza eta kultura transmititzeko, eraginkortasunez erabiltzeko, garatzeko eta indartzeko konpromisoa du.

Euskal hizkuntza eta kultura erreferentzia-ardatz dituela, hizkuntzen eta kulturen arteko planteamendu integratzailea sustatu nahi du.

Curriculum-diseinuaren oinarrian eleaniztasuna dago, euskara ardatz duelarik. XXI. mendeko gizarte eleaniztunean, euskaldunon etorkizuna eleaniztuna da. Halaber, euskarak etorkizunik badu, bere hizkuntza-esparruan nagusi delako izango da.

Euskararen ezagutza bermatu behar du, eta ikaslea euskaraz bizitzeko gaitu. Euskara batua hartuko du ardatz, baina bertoko eta inguruko euskalkia baztertu barik.

Euskal Herriko mendebaldean bizi garenez gero, beharrezkoa da gaztelania egoki ezagutzea eta erabiltzea. Halaber, ingelesa, zeina nazioarteko harremanetan nagusi den, ondo ezagutu eta jariozunez hitz egin behar da. Azkenik, frantsesez ere jakin beharko litzateke, garrantzitsua baita mugaren bi aldeetako gizartearen kultura-kohesiorako.

Zentzu horretan, Hizkuntza Proiektuan agertu legez, curriculum-proposamen bakarrean biltzen dira aurrez aipaturiko hizkuntzak. Izan ere, landuko diren trebetasun linguistiko orokor horiek edozein hizkuntzatarako balio dute.

ANTOLAKETA EGITURAREN PRINTZPIOAK

Ander Deuna Ikastola kooperatiba integrala da, bazkide erabiltzaileek eta langile bazkideek osatua. Erakunde independentea eta autonomoa da, eta kudeaketa bazkideen esku dago.

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztien parte-hartzea eta berdintasuna bermatuko dira.

Ingurumenaren arazoaz jabetuta, kudeaketaren baitan kontsumo arduratsua sustatuko da, baita gizarte justuago eta ekologikoki iraunkorragoa ere. Kudeaketa-eredua elkarrenganako begirunean eta elkarriketan oinarrituko da, bai eguneroko lanean, bai erabakiak hartzeko orduan.

Kooperatiba bat denez, baditu berezko balioak: elkartasuna (interes pertsonalaren gainetik interes kolektiboari erantzutea eta helburuak lortzeko talde-lanaren eta taldearen erantzukizuna); berdintasuna (erabakiak hartzeko, beharrezko informazioa jasotzeko eta iritzia emateko); atxikimendu askea (borondatezko konpromisoa eta inor ez baztertzea bere sexu, ideia politiko, gizarte-maila, etnia edo erlijioagatik); kudeaketa demokratikoa (bazkide bat, boto bat); komunitatearekiko konpromisoa (kooperatiba bere baitan hartzen duen komunitatearekin zuzeneko harremana eta komunitatearen garapenerako ekarpena).

Ander Deuna Ikastolak eraginkortasun-irizpideak erabiltzen ditu ikasleen eta bazkideen asebetetze-emaitzak lortzeko, bai gainerako bezeroei erantzuteari dagokionez, bai bere berriazko kudeaketa-sistemei erantzuteari dagokionez.

EHiko (Euskal Herriko Ikastolen Europar Elkarte) eta Erkideko (Euskadiko Lan Elkarleen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa) partaide da, eta lankidetzaz hitzarmenak eta itunak izenpetu ditu hezkuntza, kultura eta gizarte arloetako beste eragile batzuekin, betiere interes komunekin proiektuak eta egitarauak garatzeko.

IKASLEAREN IRTEERA PROFILA

A.- OINARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK

1) Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, komunikazio egokiak eta eraginkorrak egiteko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

2) Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

3) Elkarbizitzarako konpetentzia.

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsoneri nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak aitortuta, eta, horrela, ekarpena egitea norberaren eta guztion onurari.

4) Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.

Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausardiaz eta eraginkortasunez kudeatzea da, egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.

5) Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Norberari bizitzako hainbat egoera eta esparrutan sortzen zaizkion sentimenduez eta pentsamenduez hausnartzea, bai eta norberak egiten dituen ekintzez ere, eta, horien gainean egiten den balorazioari erreparatuta, haiek sendotzea edo doitzea; finean, pertsonaren autorrealizaziorako bidea egitea, bere dimentsio guztietan, etengabeko hobekuntzaren bidez.

B.- OINARRIZKO ARLOEN BAITAKO KONPETENTZIAK

1) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.

Hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuta komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzea, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.

2) Matematikarako konpetentzia.

Jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrezanean dagozkien arazoak ulertzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta irudikapen-moduak zein tresnak erabilia.

3) Zientziarako kompetentzia.

Zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzenean baliatzea, testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko eta teknologiko nagusiak erabiltzea askotariko testuinguruetan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren arabera ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.

4) Teknologiarako kompetentzia.

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz erabiltzea eta garatzea, jakintza teknikoak eta gainerako alorretako jakintzak era metodiko eta eraginkorrean aplikatuta, intereseko egoerak ulertzeko eta konpontzeko edota produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko; horrez gain, lortutako emaitzen berri ematea, hobekuntza-prozesuekin eta erabakiak arduraz hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

5) Kompetentzia sozial eta gizabidezkoa.

Nork bere burua, bere taldea eta mundua ezagutzea eta ulertzea da, gizarte-zientzietako jakintzak eskuratuta, kritikoki interpretatuta eta erabilia; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzako ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta anitza lortzeko bidea urratzearren.

6) Arterako kompetentzia.

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoa balioestea, denbora-eta erabilera-testuinguruetan, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz jabetzeko. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea, arte-mezuak ekoitzi eta ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazteko eta komunikatzeko.

7) Kompetentzia motorra.

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisikoaren eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohitura barneratu eta, bizimodu osasungarrian oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalaren ongizatea lortzen laguntzeko.

IRAKASLEEN PROFILA

Irakaslearen profil orokorra

- Irakasleak goi-mailako hizkuntza-eskakizuna bete behar du, euskararen erabileran, gaztelanian eta, haren betebeharrak didaktikoek hala eskatzen badute, hirugarren hizkuntza baten erabileran ere.
- Prestakuntza eta jarrera egokiak behar ditu ikasleei oinarritzko kompetentziak garatzen laguntzeko, curriculumeko arloen bidez eta ikastola-bizitzatik kanpoko egoeretan eta eremuetan.

- Familien, ikasleen eta gizartearen itxaropenak kontuan hartuko ditu, eta ikastola-eredua etengabe hobetzen lagunduko du.

Irakaslearen profil espezifiko

1. Ikastola-eredua hobetzeko ideiak proposatuko ditu, bere gain hartuko du ikastolaren eta ikastolen kolektiboaren hezkuntza-proiektua, eta, proiektu hori ezartzeko, koordinatuta jardungo du hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin eta gainerako ikastolekin.
2. Irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuak planifikatu, egokitu eta landuko ditu. Hori guztia kompetentzietan oinarritutako ikuspegiaren arabera eta beharrezko baliabideak aukeratu eta prestatuta. Irizpide eta metodo egokiak ezarriko ditu ebaluazio-lanak bideratzeko. Ebaluazio-irizpideak argi jakinaraziko dizkie ikasleei eta familiei.
3. Heziketa-jarduera hobetzeko izaera irekia eta ekintzailea erakusten duten ikerketa didaktiko-pedagogikoak planifikatu eta gauzatuko ditu. Bere lana hezkuntza-komunitate osoaren mesederako eskainiko du.
4. Aldatzen ari diren gizarteko errealitate sozioekonomiko eta politikoak aintzat hartuko ditu. Hezkuntza-komunitatea hobetzen laguntzeko eta gizartea hobetzeko, lankidetzan jardungo du familiarekin, gainerako langileekin, ikasleekin eta ingurunekeo gizarte-erakundeekin.

FAMILIA ETA GIZARTE HEZITZAILEAREN ERAGILE EREDUA

Familiak, langile bazkideekin batera, kooperatibari dagozkion ebatzorganoetan parte hartuko du: beharrezko erabakiak hartuko dituzte eta, ahal den neurrian, hezkuntza-komunitatearen ongizate orokorraz arduratuko dira. Jarrera egokia izango du seme-alaben heziketan zuzenean eta aktiboki jokatzeko, irakasleekin eta gainerako langileekin elkarlanean. Hezkuntza-komunitatea osatzen duten gainerako kideen eta gizartearen itxaropenak kontuan hartuko ditu eta ikastola-eredua etengabe hobetzen lagunduko du, bereziki euskara eta kultur-ekimenak babestuta. Euskalduntze-prozesuan jarrera aktiboa izango du.